

FUNTSEZKO GIZARTEAK

Gure proiektuak, bihotzaren pultsazioak neurtu eta anomaliak detektatzeko banda elastiko adimenduna garatzea helburu duenak, ondo funtzionatzeko hainbat bazkide eta hornitzaile garrantzitsu behar ditu. Lehenik, adimen artifizialeko software eta algoritmoen enpresak ezinbestekoak dira, haien teknologiarik esker gure sistemak jasotzen dituen datuak modu egokian analizatu eta bihotz-anomaliak garaiz detektatu ahal izango ditugulako. Horrez gain, ospitaleak eta osasun-zentroak guretzako garrantzitsuak dira, bertan produktuaren benetako erabilera probatu, datu fidagarriak jaso eta medikuen balorazio profesionala lortu baitezakegu; gainera, urte sasoi jakin batzuetan azpikontratazioa beharrezkoa izan daiteke eskari handiari erantzuteko.

Bestalde, sentsoreen eta banden fabrikatzaileek gure produktua fisikoki garatzeko behar ditugun osagaiak eskaintzen dituzte, eta askotan hornitzaile hauek denbora oso laburrean entregatu behar izaten dute gure produktua ekoizpen-prozesua ez eteteko. Era berean, parametro fisiologikoak monitorizatzeko eta jasotzeko tresnen fabrikatzaileak ere funtsezkoak dira, haien teknologiarik gabe gure bandak ez bailuke behar den zehaztasun mailan funtzionatuko. Azkenik, marketing-enpresa baten laguntza behar dugu gure produktua merkatuan ezagutarazteko, bezero potentzialengana iristeko eta negozioaren hazkundea bermatzeko. Bazkide eta hornitzaile hauek guztien ekarpenik gabe, gure proiektuak ez luke behar bezala aurrera egingo.